

Gipuzkoa
Eibar
Matsaria

OLAVE, SOLOZABAL Y CÍA.



Txonta kalean ireki zuten enpresa hau 1920ko hamarkadan. Errebolber kulunkariak egiten zituzten. Ondoren Ardantza kalera eraman zuten; lan berean aritzen ziren bertan ere. Gerra Zibilaren ondoren, idazmahaietarako artikulak soilik egiten hasi ziren; hain zuzen, El Casco markakoak. Garai hartan, Blas Etxeberria kalean eraikin berria diseinatzeko agindu zioten Raimundo Alberdi arkitektoari. Lehendabiziko eraikin haren inguruan pabilioi gehiago altxatu zituzten, eta 1963an osatu zuten multzoa: bazkide-entzako etxebizitzak eta langileei ostatu emateko eraikina. Fabrikazio-nabea Eibarren ohikoak diren tipologia industrialen adibide garbia da: oinplano angeluzuzeneko eta lau solairuko eraikina, bistako hormigoizko egitura eta murrak dituena (zokaloa izan ezik, harlanduxkaz estalita baitago). Estalki buruduna dauka. Ate nagusia aurreko fatxadan dago, buruduna eta ardatz bertikalekoa. Alboko fatxadan, berriz, ardatz horizontaleko ate handi eta burudun bat dago. Burudun bao zabalak ditu ia horma osoan, eta eskaileretan zulo bertikal bat dago irekita, buru eta guzti, fatxada goitik behera hartzen duena. Konbinazio horrek erritmoa ematen dio eraikinari. Atearen inguruan dago dekoraziorik landuena: moldurak eta ebakitako xafla bat. Garai batean horixe bide zegoen enpresaren marka.

Esta firma se instaló en la calle Txonta en la década de 1920, para fabricar revólveres oscilantes. Posteriormente, se trasladaron a la calle Ardanza, donde mantuvieron la misma actividad. Después de la Guerra Civil comenzaron a fabricar exclusivamente artículos de escritorio marca El Casco. En la misma época se encargó al arquitecto Raimundo Alberdi la construcción de un nuevo edificio, en la calle Blas Etxeberria. Alrededor de este primitivo edificio fueron creciendo nuevos pabellones, y el conjunto se completó en 1963 con la edificación de viviendas para sus socios y un edificio para dar alojamiento a los obreros. La nave de fabricación es un claro ejemplo de una de las tipologías industriales más habituales de Eibar: un edificio de pisos de planta rectangular, con cuatro alturas, estructura y muros de hormigón visto, salvo en el zócalo, que es de sillarejo, y cubierta adintelada. En la fachada delantera se abre la puerta principal, adintelada y de eje vertical, mientras que en la lateral aparece un portón adintelado de eje horizontal. Amplios vanos adintelados rasgan casi por completo el lienzo del muro, y en las escaleras se abre un hueco vertical adintelado acristalado, que ocupa toda la altura de la fachada. Esta combinación imprime ritmo al edificio. La decoración más elaborada se reserva para el recerco de la puerta, con molduras y una placa recortada, donde debió ir en el pasado la marca de la empresa.